

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko maiatzaren 08a / 260. zenbakia / 20. urtea

- **HERRIKO KONTUAK** **Artisau azoka** 05
- **KIROLA** **Plaiaroak** 08
- **ERREPORTAJEA** **Itsasoaren adarra** 13-16

- **IRITZIA** **Jokin Izagirre** 18
- **MOILA BAZTERRETIK** **Jon Agirresarobe** 19
- **HERRITARRA** **Salatxo abesbatza** 25



Urte askoan amona Justinari

100 urte egingo ditu
Justinak datorren astean.
Aitzakia ezin hobea
egindako bideari
begiratzeko eta
famieliarekin ospatzeko.

02 PUBLIZITATEA

2009ko maiatzaren 08a | KARKARA

SOLOZABAL
autoeskola



Eusko Gudari, 30-1. ez.
telef: 943 83 08 12

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TACHOKAK - BALBULAK



Santiago auzoa - 18 postakutua
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
180 9000

Eskarako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

TANATORIO ZARAUTZ
ETIKUFUNERARIAN TALDEA



Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiarako zerbitzuak
- * Belatorio gelak
- * Koroak, eskelak, tranitzioak...

Araba kalea, 35 - Zarautz

Tel: 943 88 49 37 | Fax: 943 88 48 41
e-mail: harraspit@harraspit.net

tel/fax: 943 89 00 69
Bikola kalea, 4 - 22.880 ZARAUTZ



**ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA**

Sukalde eta bainuen erreformak



XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

ZAPATA KONPONKETAK



Lanagintza, 1900 - 1910 eta 1910 - 1920
Zarautzko kalea, 1900 - 1910
Bereko konponketak, Ordo

Zaragueta Eskola Ordo



telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Keinu Lantzeraketa
Landareak Landatze



keinu lantzeraketa 647028489

landareak eta landareen diseinua eta
mantentze, irratizko sintonia eta
komunikazioa.

Peluteria eta estetika mistoa



- Tatu egiteak eta peluteria naturalak
- Belarjardak eta belarjardak
- Aukerak erabakitzeko
- Pedikura
- Depilazioa

San Nikolas, 3 Tel: 943 83 31 70

JUAN PEDRO FERNANDEZ OSA
KIDIZ ERREKONSTRUKTIBO KOLEGIATUAK
JUAN PEDRO FERNANDEZ OSA
PROFESORATUA TRINIDAD (A) KOLEGIATUAK
810 00 25 47
osajuan@osajuan.com



LORETXU JATEKAK



Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzeko asmarik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

islada
ESTUDIO ZENITRA



Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Balmores kalea, 4 beheko Ordo 20810
Tel: 943 133 856
e-mail: islada@igntmail.com

A&E
The Academy of English



Justo kalea 3, Zarautz | Basi Ondo pl. 8, Ordo

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

azkue



Tf: 943 13 04 38

edukitegia
ANTILLA
jaleketa



Albaitz kalea 2 - Tel: 943 83 20 00

uranga
autozorbiluzia



Aliprox

Eusko Gudari, 18-19
ORDO
943 83 38 75

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Mikel Aranzabal, Pat Cowie,
Olatz Elustondo, Miren Etxeberria,
Eli Lasa eta Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Joseba Aizpuru, Iñigo Azpitarte,
Herrio natur taldea, Jokin Izagirre
eta Anjel Lertxundi

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

Banatzaileak

Ane Etxabe eta
Ander Mujika (Orio)
Ainize Sayago (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua

SS-346/90

ISSN

1132-1105

Tirada

3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.

KARKARAn argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Bigarren gerrikoa

JOSEBA AIZPURI

1


Eguerdirako egon
nahi nuke Orion,
atun pintxoak dohain,
bisigua zer on!
Andoain paren kola
ezin dut itxaron
Ea noiz etortzen den
Segundo Cinturón.

2

Gizon honek baditu
hatz adina beso
ta gerriko lodi bat
gu hartzeko preso
Jarri bere bidean
ez izan inozo
Ai! Progreso honi egin
ahal banio paso.

3

Ta delako progreso
horren izenean
dena besoz, gerrikoz
bete zaigunean
Zinturoiaren mende
duguna galtzean
peaje garestiak
aurrerabidean.



GERRY STU



Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



04 GUTUNAK

2009ko maiatzaren 08a | KARKARA

Mikrofonoa falta zaigu

Gure talde folklorikoarentza-ko beharrezkoa da mikrofonoa, eta duela aste batzuk Kosta Tailerrean dugun lokaletik falta zaigu gurea. Lerro hauen bitartez, kablerik gabeko mikrofonoa gordetzen duen kaxa beltza—Shure jar-tzen du— itzultzeko eskatu nahi genioke aurkitu duenari; asko estimatuko genioke gurekin harremanetan jarri-ko balitz ondorengo telefonoetan: 634 87 23 83 eta 943 24 88 08.

TALDE LATINOA

Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak

Datorren ekainaren 7an izango dira Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeak.

Botoa ematera joaterik ez baduzu eta postaz emateko asmoa baduzu, informatuko zaitugu eta tramiteak azkar egiten lagunduko dizugu.

Dei iezaguzu 943 89 07 89 telefonora astelehenetik ostiralera, 19:00-20:00 (beste orduetarako aurrez hitzartu)

Gogoratu: botoa postaz emateko epea maiatzaren 28an bukatuko da.

Nahi izanez gero, dei iezaguzu lehenbailehen edo bestela pasa zaitez batzokitik (Ibaiondo 2-3).

EJA-KO URIBATZARRA

Zehaztapenak zehaztuz

Ez zen nire asmoa herriko ikastola berriaren finantzazioaren baitan sortu eta euskal hezkuntzaren erroetaraino doan eztabaidan parte hartzea. Baina Antonio Camposen azkeneko eskutitza irakurri eta gero, hainbat zehaztapen egitea beharrezkotzat jotzen dut, horrela izan ezean errealitatea desitxuratzeko auke-

GUTUNERAKO OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@karkara.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

rak zabaltzen baitira. Ikastolak euskal hezkuntza hobetzeko lanean eragile nagusiak direla defendatzeko orduan—beste hainbat eragilarekin batera gaineratuko nuke nik—, Euskal Curriculumaren egitasmoa adibide gisa erabili duzu, modu traketsean erabili ere. Izan ere, Euskal Curriculumaz izendatu duzuna EAEko curriculum dekretuarekin ordezkatu duzu. Horrela, Euskal Curriculumak dituen oinarriak eta helburuak desitxuratu dituzu, kontzeptuak nahasiz eta inolako ikuspegi nazionala erakutsi gabe.

Izan ere, Euskal Curriculumak, Euskal Herri osorako curriculum burujabea da, indar arauemailerik ez, baina indar sozio-politiko handia duena. Euskal Curriculumaren funtsa, Euskal Herriatik eta Euskal Herriarako marko pedagogiko komun bat sortzea da. Euskaldunok Euskal Herriaz ez ezik munduaz dugun ikuspegiaren irudikapena ere bada. Ikuspegi eta helburu horiek bildu gintuzten orain dela 6 urte Udalbiltza, Ikastolen Konfederazioa eta Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak, eta akordio horren emaitza da 2008ko ekainaren 21ean Kur-saalen plazaratu zen proposamena.

Curriculum dekretu berriak, aldiz, esparru administratibo bakoitzerako curriculum autonomikoak dira. Curriculum autonomiko

horien %55 Espainiako Gobernuak finkatzen du eta beste %45 EAEko Hezkuntza Sailak. Curriculum dekretu horrek bere erabaki marko eta prozedura propioa du. Beraz, bertako hezkuntza komunitatea osatzen duten kideei zuzendutako proposamen autonomista da ondokoa.

Amaitzeko, Ikastolak eragile aktiboak izan dira eta dira euskal hezkuntzaren garapenean. Alta, euskal irakaskuntzaz zer ulertzen dugun definitu beharko genuke. Nik bederen, Hezkuntza Sistema Nazionalaren pareko ulertzen dut: egungo zatiketa administratiboa gainditzen duena, herri gisa pentsatu eta aritzeko tresna, Euskal Herriaren garapenerako bermea eta Euskal estatuaren bidean ezinbesteko urratsa.

RUBEN IGLESIAS (UDALBILTZAKO EUSKAL CURRICULUMAREN ORDEZKARIA)

Ohar pare bat

Maiatzaren 9an, gaztetxearen sorreraren alde lortu ditugun sinadura kopuruaren berri emango dugu 13:00etan, plazan. Horrez gain, bertan izango dira sinadura guztiak, jendaurrean, nahi duenak ikus ditzan eta hori izango da sinatzeko azken aukera ere. Hurrengo astelehenean, hilaren 11n, udaletxean sarrera emango diegu, behingoz,

herriaren hitza kontuan har dadin. Bide batez, *Udaberrian gaztetxea loratu* ekimenean lagundu diguten guztiei eskerak emango dizkiegu.

Gogoratu baita ere, AHTren proiektu erraldoia, elitista, txikitzailea eta alferrikakoa geldiarazteko manifestazio nazionala izango dela larunbat arratsaldean Iruñean eta, horretan ere, herriak baduela zer esana.

Gaztetxea bai. Abiadura Handiko Trena? Inolaz ere ez!

OKK GAZTE ASANBLADA

Orioko Plaza

Maiatzeko *Orioko Plaza* hila-betekarian argitaratua: *Bitartean, gaztetxoak Blink-eko plazan puzgarrietan eta tailerre-tan jolasean aritzeko aukera izan zuten arratsalde osoan zehar*. Non ziren haurrak? Eta puzgarriak? Nik dakidala, Karelana. Eta nolatan horrelako akatsa? Ez al da izango, norbaitek notizia gertatu aurretik idatzia zuela? Lanerako metodologia xeble samarra, ezta? Orioko Plaza egiten duen lan taldeari (auskalo nortzuk diren aldizkarian ez baitu inolako daturik jartzen) eta herriko Udalarari zorionak, bihotzez, herritarrei emandako kazetaritza ikastaro paregabe honengatik. *Chapeau!*

HERRITAR BAT

Gu izan gintezke!

Maiatzaren 12an, Zarauzko *Putzuzulo amets fabrikako* kide bat epaituko dute 2006ko urrian gaztetxea okupatzeagatik. Ez da oso ulergarria, ondorengo negoziaketetan etxearen jabearekin eta Udalarekin autokudeaketarako ados jarri baitziren gazteak, gaztetxea erabiltzeko baime-na lortuz horrela.

Orion gaztetxea okupa-

20. ORRIALDEAN JARRAITZEN DU

GOIKO KALEKO FESTA BATZORDEAK ERE SALTOKIA JARRIKO DU

Artisau Azokak Orioko herria hartuko du maiatzaren 10ean

Aspaldiko urteetako azokarik handiena izango da aurtten, Goiko kaleaz eta herriko plazaz gain, kultur etxe atzeko plaza berritua ere hartuko baitu.

Maiatzaren 10ean izango da aurtten 17. Artisau Azoka. Goiko kalea eta herriko plaza izango dira saltoki gehienek kokagune, baina kultur etxe atzean ere jarriko dituzte beste zenbait. Goizez, 11:00etatik 14:00etara egongo da azoka zabalik eta, arratsaldez, 16:30etik 20:00etara.

Herritarrak eta bisitariak festa giroan murgiltzen laguntzeko, bezperan, maiatzaren 9an, Begira antzerki taldeak *Pirataklown* umeentzako antzerki lana eskainiko du, 18:00etan, kultur etxean.

SALTOKI ASKO

Bitxiak, egurrezko lanak, taloak, izozkiak, barazkiak, kontserbak, gazta, baserriko ogia, kandelak, loreak, senda belarrak... denetarik erakutsiko dute azokako 49 mahaietako artisauak.

Orioko elkarte batzuk ere tartean izango dira: Farfarak erabilitako liburuak trukatzeko mahaia jarriko du eta alde zaharrean kaleko giroa indartzeko haurrentzako eskulan tailerra Goiko Kaleko Festa Batzordeak. Ostargikoek, berriz, beren jostun lanak erakutsiko dituzte jarriko duten mahaian.

Ez dira, ordea, azokan parte hartuko duten oriotar bakkarrak izango. Agua-Kt Adelak bitxiak salduko ditu, Antxon Mendizabal ere bertan izango da egurrezko lanekin eta Gurutze Yartzak bidezko merkataritzaren inguruko informazioa zabaldu eta produktuak salduko ditu beste altoki batean.



Iaz baino 23 saltoki gehiago izango dira aurtengo azokan.

KARKARA

BESTELAKOAK

Beste zenbait ekimen ere izango dira: Salatxo abesbatzak kalez kaleko kantaldia emanango du, 12:30ean. Heldu! herri

kirol taldeak ere ikuskizun berezia eskainiko du, 12:00etan: Anjel Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez* liburuko apustua gogoratuz,

porlan zaku bat bizkarrean hartuta, elizako atari paretik atera, Pillikun buelta eman, herriko plazara jaitsi eta Zakilane aldapatik igo beharko dute kirolariek banan-banan.

Azokan ikusiko dugu elkar

Maiatzeko artisau azokan parte hartzea ez da lan erraza izaten. Kanpoko enpresa batek kudeatzen duenez, harremanak nekez bideratzen dira. Komunikazio-inkomunikazioaren ataka honetan beharrezkoa da pazientzia jokatzeko azokara gogoz iritsi nahi bada, behintzat. Han izango gara artisauen artean, norberak bere pitxiak sortzeko mahaian; Farfarakoak bigarren eskuko liburuekin; Heldukoak zakua lepoan hartuta azokan bueltaka eta herritarrak bidezko merkataritzaren produktuak saltzen. Ze ederragoa norberaren gogoak eta ideiak azoka batean eskaintzea baino!

GOIKO KALEKO FESTA BATZORDEAK

BIDIZKO MERKATARITZA

Maiatzaren 9an bidezko merkataritzaren munduko eguna dela aitzakia hartuta, informazioa eman eta zabaltzeko mahaia jarriko da. Merkataritza mota hori errespetatzen duten produktu eta ekoizleek baldintza zehatzak bete behar izaten dituzte: besteak beste, langile guztiek, gizon-nezko nahiz emakumezkoek, lan baldintza eta soldata duinak jaso; salmentatik ateratako diruaren etekinen zati bat komunitatearen garapeneren alde erabili eta ingurumena errespetatu.

WWW.KUDEPARK.COM HELBIDEAREN BIDEZ JAKINARAZI BEHARKO DA

Hondatutako jolasen berri zuzenean eman daiteke

Parkean konpondu beharreko jolasen bat ikusten duen herritarrek Udalari eta Lurkoi enpresa kudeatzaileari jakinarazteko aukera izango du, internet bidez.

Orioko sei jolas-parkeetan — Anibarko portuan, arranpla ondoan, Baxoalden, Bikamiotan, Goiko Kalen eta hondartzan daudenetan — hondatutako edo hautsitako zer-bait ikusiz gero, Udalari eta jolas tokien kudeatzaileari, abisua emateko aukera izango du edozein herritarrek. www.kudepark.com-en sartu beharko du horretarako.

Udaleko bulego tekniko-tik adierazi dutenez, konponketak azkarrago egingo dira era horretan; alde bate-tik, herriko parke guztietako mantenua elkarte beraren esku dagoelako eta, bestalde, harremana zuzenagoa delako. Zerbitzuak erantzun ona izan-go duela ere uste dute: *Gipuzkoako beste zenbait herritan martxan dago programa bera eta ondo funtzionatzen du.*

Urte osoan herriko parke-ak txukun eta erabilgarri ego-tea lortu nahi du Udalak Lurkoi enpresak berak proposa-tutako zerbitzuarekin.

NOLA BIDALI INPRIMAKIA

www.kudepark.com web orrian sartu eta azalean ager-tzen den *intzidentziak online jakinarazi* ataleko *inprimakirako sarrera* klikatu behar-



Herriko 6 parkeak egoera onean eduki nahi dira zerbitzu honekin.

KARKARA

Behin kalteen berri ematen duen inprimakia jasota, lehenbailehen konpontzeko ardura hartu du Lurkoi enpresak

ko da, kalteen berri emateko. Bertan agertuko den orrian lurralde historikoa, herria eta

jolas-parkearen izena auke-ratuko dira, ondoren. Parke-aren kokapena azalduko da lehendabizi, eta jolas tokiak dituen atalak erakutsiko ditu gero, konpontzeko dagoena irudia ikusiz aukeratzeko.

Azkenik, norberaren datuak eskatuko ditu orrial-deak eta inprimakia bidaltzea besterik ez da egin behar bukaeran.

Behin inprimakia jasota, akatsak lehenbailehen kon-pontzeko ardura hartu du Lur-koik.

LABUR

INGURUMENA

Maiatza naturan

Herrio natur taldeak *Maiatza naturan* antola-tu du hilabete honetarako. Hiru hitzaldi: 6an, 13an eta 20an, kultur etxean, 19:00etan; bi irteera: 9an eta 17an; Erromeria Egu-na: hilaren 24an, Iturra-rango lorategi botanikoan, Pagoetan; eta, Kukuarri mendiarekin gogoratzeko, argazki rallya izango da maiatzaren 31n, Kukuarri Egunean, hain zuzen.

KULTURA

Liburu azoka

Farfara elkarteak liburuak trukatzeko azoka antola-tu du; etxean erabiltzen ez diren aldizkari, komiki, nobela... ekarri —entzi-klopediak ez dira onartu-ko— eta beste bat har-tzeko aukera izango du jendeak horrela. Hilero azken astelehenetan egin-go da, elkarteak Iturbide kaleko 7an duen lokalean, 18:30etik 20:00etara.

HAURRESKOLA

Matrikulatzeko epea zabalik

Maria Maestra haurresko-lako matrikulatzeko epea irekita dago maiatzaren 15a arte. Harajonez gero, Haurreskolan bertan edo, bestela, 943 89 06 25 tele-fonora deituta eman beharko dute izena inte-resatuek.



SEI UDALTZAIN LAGUNTZAILE GEHIAGO IZANGO DIRA UDAN

Udako Udal lanpostuen zerrenda argitaratu da

Apirilaren 4an probak egitera inoiz baino jende gehiago aurkeztu ondoren, maiatzaren 5ean argitaratu zuen udalak 2009ko udarako Udal lanpostuen zerrenda.

Urtero udarako lanpostuak sortzen ditu Udalak eta kanpinerako 5 zaindari, 6 udaltzain laguntzaile, hondartzako kabinetarako 2 garbitzaile, kanpineko komunetarako beste bi eta turismo bulegoko eta kanpineko harrerarako langile bat behar ziren aurtengo kanpainarako. Krisiaren eraginez langabezia gora doalako edo inoiz baino jende gehiago, ia ehun lagun, aurkeztu zen apirilaren 4an kultur etxean egin zen azterketara, udarako Udal lanpostuetako bat eskuratzeko, baina 22 bakarrik izan dira zorioneko, azterketaren eta elkarriketaren ondoren puntuazio altuena lortu dutenak.

ZERRENDA

Hauek dira Udalak aukeratu dituen langileak, lanpostu horiek betetzeko:

Mikel Loidi Udabe, Aitor Garmendia Manzisidor, Iban Urretabizkaia Aranguren, Iñigo Gaiton G. de Txabarri eta Lander Sarasola Oliden kanpineko zaindari lanak egiteko. Oier Azkue Solaberrieta da ordezkoa.

Udaltzain laguntzaile iza-



Turismo bulegoko eta kanpineko harreraren lan egiteko lanpostua Raquel Arrieta Andia renak eskuratu du.

KARKARA

teko Garazi Ibirriaga Zubimendi, Imanol Peña Arratibel, Asier Zabaleta Escudero, Maialen Zain Vicente, Uxue Tolosa Eizagirre eta Jon Garcia Arregi izan dira aukeratuak. Oier Garmendia Arregi norbaitek huts egin zain egon beharko du, ordezkoi baitago.

Hondartzako kabinak garbitzeko bi langile behar ziren eta Ane Garcia Alonso eta Libe Larrarte Esnal izan dira azterketan kalifikazio altuen lortu dutenak eta Mikel Ubegun Manterola izango da ordezkoi.

Nekane Elizondo Buenok, Gorka Garcia Alonsok, Iban Lertxundi Zabalak eta Aizpea Esnaola Lizasok kanpineko komunak garbitu beharko dituzte eta, horietako baten batek huts egingo balu, Iñigo Arriola Irizar izango litzateke ordezkari lehena.

Lanpostu bakarra zegoen turismo bulegoko eta kanpineko harreraren egoteko eta hori zen, gainera, kalifikazio handien eskatzen zuena. Bada, Raquel Arrieta Andia renak hartuko du lana eta Kar-mele Alkorta Alkorta izango da

Hogeita bi bakarrik izan dira aukeratuak eta beste bostek ordezkioen zerrendan egon beharko dute zain

ordezko.

Irrikitan ibila da jendea eta asko izan dira KARKARATA deitzen jardun direnak emaitza jakiteko.

AHOLKULARITZA
Fiscalia, Inbentarioa, Kontabilitate

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1

Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

RAMIRO

Jaunartze
erreportajeak
30-300 euro artean

943 83 10 48
www.fotoramiro.com

Goizeko

KAFETEGIA

☎ 943 83 28 55

Ami Lertxundi 33 bidea ORIO

Autobus parada ondoan



Kepa Loidi taldeko mutilak pozik Emilio Olazabal Kopa irabazi ondoren.

KARKARA

KOPA BANA EKARRI DUTE KEPA LOIDI TALDEKOEK ETA IKASTOLAKO NESKEK

Fin ibili dira oriotarrak Zarauzko plaieroetan

Orioko Herri Ikastolako neskak eta Kepa Loidiko mutilak Ligako eta Kopako txapelkun izan ziren. Horretaz gain, beste bi sari berezi ere ekarri zituzten oriotarrak.

Emaitza apartak lortu dituzte aurten hondartzako futboleko aritu diren talde oriotarrak: emakumezkoen alebin kategoriako Ligako eta gizonen senior kategoriako Emilio Olazabal Kopako txapelkunak izan dira, hurrenez hurren, Orioko Herri Ikastolako 6. mailakoak eta Kepa Loidi taldekoak.

HAURRAK

Orioko Herri Ikastolako 6. mailako neskak izan ziren eskolarteko txapelketako finalera iritsi ziren oriotar bakarrak eta apirilaren 26an, Aia-ko Lardizabal eskolaren aurka aritu behar izan zuten

azken norgehiagokan eta 1-6 irabazi zieten. Partidarik galdu gabe bikain bukatu dute, beraz, denboraldia.

HELDUAK

Zarauzko eta Orioko jokalariekin osatutako Kepa Loidi taldeak 10. bukatu zuen lehen aldia eta Emilio Olazabal 5. Kopa jokatzeko sailkatu zen.

Handik aurrera jokaturako bi partidak irabazi zituzten, azken lehiera iritsi baino lehen: 1-7, Arrano taldearen aurka; 2-0 ARGren kontra.

Finalean, berriz, Itxaski tabernarekin neurtu behar izan zituzten indarrak, euripean. Lehen erdian ez zen golik izan, baina bigarrenean Haritz Albizuk sartutakoari esker, txapela Oriora ekarri ahal izan zuten.

Andoni Atorrasagastik esan digu oso gustura aritu direla jokalaria guztiak denboraldi osoan eta berak,

Jokalaririk onenaren saria lortu zuen Eider Arrutik; atezainik onenarena, berriz, Izaskun Manterolak

behintzat, datorren urtean ere Zarauzko hondartzara itzultzeko asmoa baduela, esperientzia eder hori errepikatuko.

SARI BEREZIAK

Taldeek jasotako emaitza onez gain, sari bereziak ere izan ziren oriotarrentzat: atezainik onenarena jaso zuen Xixarri taldeko Izaskun Manterolak eta jokalaririk onenarena, berriz, ikastolako Eider Arrutik.

LABUR

DARDOAK

Bullshooter Euskadi 2009

Maiatzaren 8an hasiko da aurtengo Bullshooter Euskadi txapelketa, Easo taldeak antolatuta. Lasarte-ko frontoian jokatuko dira partidak, hilaren 10a arte.

Cricket 501 eta 701 modalitateetan arituko dira dardozeleak eta Unar taldeko hainbat jokalaria ere bertan izango dira.

Hilaren 8ko 18:30ak arte eman daiteke izena eta www.unartaberna.com helbidean eskuragarri dago horretarako orria.

SOFBOLA

Hirugarren

Orioko Bate Bizkorrek taldeko kadeteak 3. izan ziren maiatzaren lehen asteburuan Oviedon jokaturako Espainiako txapelketan. 3 partida irabazi eta 2 galdu zituzten eta Proiecta eta Dridma taldeen atzetik geratu ziren, azkenean.

SOKASALTOA

Munduko errekorra

Julio Aranburuk munduko errekorra jarri zuen apirilaren 25ean sokasaltoan. Minutuaren azpitik 240 salto egiteko bigarren saiakera zuen Aranburuk –otsailean egin zuen aurrenekoa– eta oraingoan 59 segundo eta 10 ehuneko marka berria ezartzeko.

JUDO A

Europako txapelketan

Europako txapelketan 5. izatea lortu zuen Oiana Blanco judokak Georgiako Tiflisen, apirilaren 26an. Jossinet frantziarraren aurka galdu zuen finaldietako borroka.

ORIOKO FUTBOL TALDEKO INFANTILAK | 1. MAILAKO TXAPELDUNAK

“Txapeldun izateko dena eman behar da hasieratik”

OFTko Infantilek Ohorezko Mailara igotzea lortu dute aurtun. Ander Dorronsoro, Joxema Errasti, Joseba Tarantino eta Xabier Rekejo kapitainekin eta Josean del Rio entrenatzailearekin izan gara hizketan.

Denboraldi osoan partida bakarragalduduzue. Nabarmen nagusi izan zarete, ezta?

Kapitainek: Bagenekien talde sendoa genuela eta igoerako borrokan egotea espero genuen, baina hain erraza izango zenik ere... askotan, aspertu ere egiten ginen.

Igoera fasean aurkari gogorragoak izango genituela uste genuen, baina berdin.

Ohorezko Mailara igotzea lortuta, Gipuzkoako txapelketa duzue orain jokatzeko.

K.: Bai, asteburu honetan jokatuko dugu eta denboraldiko azken partida izango da.

Infantiletan, talde guztien artean bi multzo banatzen dira eta, igoera fasearen ondoren, multzo bakoitzeko aurreneko lortzen dute Ohorezko Mailara igotzea. Gero, Gipuzkoako txapeldun bat aukeratzeko, mailaz igotzen direnak elkarren kontra jokatzen dute; aurtengoan, Amaiak Batek eta guk.

Eta hurrengo urtean, zer?

Entrenatzailea: Zalantzan gaude igotzea komeni ote zaigun ala ez, klubean ere iritzi ezberdinak baititugu. Talde honetan, gehienak bigarren urtekoak dira eta kategoriaz igozea tokatzen zaie.

Alde batetik, kezka hor dago. Batzuen ustetan, datozenek ez dute hauek duten kalitatea, aurtengoa oso talde ona izan baita. Ez dute komenigarria ikusten han-



Ohorezko Mailara igotzea lortu duten Orioko gazteak.

KARKARA

Igoera fasea iristean aurkari gogorragoak izango genituela uste genuen, baina ez da hala izan

ditxo geratuko zaien mailan jokatzea, gol asko jaso baititzaizakete eta, horrek, futboleko interesa galtzea ekar lezake.

Bestalde, Ohorezko Mailan Gipuzkoako talderik onenak aritzen dira eta gu haien artean izateak izugarritzko motibazioa sortzen du. Realak, Anti-

Taldeko hiru Realarekin izan ginen entrenatzen, proba egiteko. Hortik aurrerakoa ikusteko dago oraindik

guo edota Añorga moduko taldeen aurka jokatu behar lukete eta, ondo arituz gero, norbaitek etorkizunerako irtenbidea izan dezake.

Horrelako denboraldi ona eginda, ez al dute inor beste talderen baterako deitu?

K.: Bai, Realak klubera deituzuen eta zuzendaritzarekin jarri zen harremanetan. Taldeko hiru izan ginen haiekin entrenatzen, proba egiteko. Hortik aurrerakoa ikusteko dago oraindik.

Eta zer moduzkoa esperientzia hori?

K.: Polita izan zen, baina oso ezberdina da hemen edo han entrenatzea. Askoz disziplina handiagoa dute Realean eta ez dizute txantxa bat bera ere onartzen. Horretarako, nahiago oraindik lagun artean aritu.

Ent.: Egia da oso jokalaririk onak daudela taldean, Realaz gain talde gehiago ere ari dira zelatan, baina nik taldearen indarra nabarmendu nahi nuke. Egunero elkarrekin daude eskolan, kalean, entrenamenduetan... elkar ondo eza gutzen dute eta, hori, jokoan igartzen da.

Ikasketak aipatu ditugula, gurasoek errietariki egiten al dizue liburuei baino kasu gehiago egiteagatik baloiari?

K.: Bai, zera, astean bi entrenamendu saio bakarrik egiten ditugu, 18:30era bitartean, eta gero etxeko lanak egiteko denbora izaten dugu. Partidak ere asteburuan izaten dira; beraz, ez dago aitziarik.

Asteburuan dena ematera, orduan.

K.: Denboraldi osoan ez dugu gure mailako aurkaririk izan eta garaia zen partida interesgarri bat jokatzeko.

Ent.: Ez gaitezen gehiegi konfiatu. Partida batzuetan galtzen hasi gara eta gero emaitzari buelta ematen jakin izan dugu; beraz, irabazi nahi bada, dena eman beharra dago hasieratik.

JUSTINA ETXEBERRIA | ARRUTI BASERRIKO ETXEKOANDREA

Hilaren 14an, 100 urte: zorionak, Justina!

1909ko maiatzaren 14an jaio zen Justina, Uzkudun baserrian (Andatza). Bost anai-arrebetatik bizi den bakarra da. Datorren astean 100 urte egingo dituen, senideekin elkartu gara eguneroko bizimoduan zein gizartean zer bilakaera ikusi duen hitz egiteko.

Justinaren aitona Asteasukoa zen, eta amona Larraulgoa. Gurasoak, berriz, Uzkudun baserrian bizi ziren, eta han bertan jaio zen Justina, orain dela 100 urte. Auzoko eskolara joan zen, Andatzara ziu-rrerik, bailara bakoitzean bazelako eskolaren bat gutxienez, baserri batean edo bestean.

Bittoriano Maurizio Arrillaga Argin baserriko semearekin ezkondu zenean, Argin Berrira joan ziren bizitzera, Agorregi inguruan gaur egun behera erorita dagoen baserri-rrira. Pantxika, aurreneko alaba, han izan zuten. Josefina-ri gogorrek egin zitzaizkion urte haiek: ume txikia besoe-tan hartu eta mendian gora joan behar izaten zuen eguzki bila; ur asko zegoen inguruan, hotz handia... Bi urte baino lehen, Arruti baserrira joan ziren.

FAMILIA HANDIA

Ordur geroztik, senide askoko familian bizi izan da beti, eta lan handia egin du bizitza osoan, horiei guztiei arreta emanez: gurasoei, anai-arrebei ezkondu bitartean, Bittoriano senarrari eta izan zituzten 12 seme-alabei. Horieta-ko bat hil zen bi urte zituela, meningitisak jota eta, horren ondorioz, sabelean zuena galdu egin zuen. Gelditu ziren 11etatik, 10 bizi dira egun. Horiez gain, 27 biloba eta 30



Etxean goxo-goxo egotea bereziki guztukoa du Justinak.

ARRUTI

Orioko eta Zarauzko azokara joaten zen babarrunak eta arrautzak saltzera

berbiloba ditu Josefinak. Koadrila ederra osatuko dute 100. urtebetetzea ospatzeko elkartzen direnean, 80 senide inguru izango baitira.

URA EKARRI BEHARRA

Baserriko bizimodua egungoa baino askoz ere gogorra-koa izaten zen. Urik ez zegoenez, behera joaten zen bila, Sarobe aldeko iturrira, gur-

Behar zen ur guztia ekarri behar izaten zuen eta ganadua iturriraino eramane-deratzen

diarekin edo metalezko barri- nioia eskuan hartuta. Arropa ere, horretarako etxean zuen mahai berezian jabondu ondoren, iturrira eramaten zuen uretatik pasatzeko. Eta arropa zikina, berriz, ontzi batean egosten zuen, su gainean jarrita. Ganadua ere haraino eramaten zuen ura edateko. Askotan aipatu du Josefinak zein luzea egiten

zitzaion bidea, ume bat bere atzetik, negarrez, zuela eta, askotan, beste bat sabelean. Etxerako ura lortu zuten 1963 inguruan, sondeoa eginez, eta geroago, herrikoa.

BASERRIKO LANA

Baserriko lana ere gogorra egiten zitzaion, beti umeak ondoan edo sabelean zituela lan egin behar zuela kontuan hartuta. Meta egiteko garaian, semeak esaten omen zion: *Ama, joan zaitez zu belarra botatzera, sardexka txikiagoa botatzen duzu eta meta txukunago gelditzen da-eta*. Eta etxera ekartzeko, belar sortak egiten zituen askotan, berak zein umeek bizkarka ekartze-ko, idiak ez uztartzeko. Sorotan jarduten zen aitzurrean, nahiz eta tripa handia izan, baratza izugarri gustatu baitzaio betidanik. Esku onekoa zen eta baratza ederra izaten zuen. Bestelako lanetarako gurdia eta lera baino ez zituzten, oso berandu arte ez baitzuten traktorerik ekarri. Senarrak ezagutu, bai, baina ez zuen erabili, bizitza osoan jasandako asmarekin borrokan jardun eta jota gelditzen baitzen ordurako. 1978an hil zen.

AZOKARA

Etxezalea da Josefina; inoiz ez du kanpora joateko grinarik izan. Oriora, ostegunetan, eta Zarautzera, larunbatetan, joaten zen, azokara, babarruna eta arrautzak saltzera, eta etxe-ko enkarguak ekartzera. Astoa hartuta, komeriak izaten omen zituen Xuaiko zubitik pasatzeko, ihesi egiten baitzion. Etxetik ateratzeko oinezko bideak baino ez zituzten. Aiako bidea orain dela 40 bat urte egin zen, eta Arruti- tik beherakoa, geroago.

Aiara ere joaten zen, artoa

ehotzera, gero taloa eta arto opila egiteko, neguan, behintzat, egunero jaten baitziren gosalteko eta afaltzeko.

Francoren garaian galarazita zegoen libre ehotzea, eta auzoko errota guztiak itxita zituzten. Baina beste asko bezala, Agorregikoak martxan jartzen zituzten auzokoek, Oriotik inspektorea tren geltokira iritsi zenaren abisua jaso bitartean. Abisua Oriotik Aiara bidaltzen zuten, eta Aiatik, mutil batek korrika eramaten zuen Agorregira; ordainetan, gosari ederra ematen zioten! Di-da batean ixten zuten, inspektorea iritsi baino lehen, inoiz erabili ez balute bezala.

ARGIA

Etxea argitzeko, kandela, kinkila eta karburua zituzten. Kinkilan erretzen zenak ke lodia botatzen zuen, eta karburuak argi finagoa ematen zuen. Gero, garai batean, elektra indarreko zerbait jasotzen zuten Laurgaingoentzat Agorregitik gora jarri zuten turbinatik, baina askotan zikindu egiten zela edo ur gutxi zegoela, falta izaten zen.

GAUR EGUN

Gaur lasai bizi da Josefina, 4 belaunaldi hartzen dituen etxean. Gauzak berak egitea gustatzen zaio: afari arina prestatzen du, pilota partidak jaiero ikusten ditu, biloba eta birbiloben bisitak asko estimatzen ditu... Etxekoekin ondo moldatzen da eta esan digute umore ironikoa ez duela galdu.

Orain dela pare bat urte biloba bati esan zion jaso dugu: *Nik garai batean jakin izan banu orain dakidana, trajebainua jantzi eta plaiara joango nindunan!*

Zenbat gauza ikusi eta bizi izan du Josefinak! Jaso ditzala gure zorionik beroenak. Eta urte askotarako!

EGURALDI ONAK LAGUNDUTA, EHUNKA LAGUN ELKARTU ZIREN AIAN

Euskal Eskolaren aldeko jaia aurkeztu zuten Aian

Goizean eguzkitsu eta arratsaldean lainotuta, hasierako jendetza pixkana gutxitzen joan zen, baina jai giroak egun osoan iraun zuen.

Maiatza bukaeran Iruñako Takoneran egingo den jaia gipuzkoarrei aurkezteko, Euskal Eskola Berriaren aldeko eguna ospatu zen Aian maiatzaren 3an, igandearekin, Sortzen-Ikasbatuaz Ikastola eta Eskola Publikoen Elkarteak antolatuta. Lardizabal eskolatik esan digutenez, espero baino hobeto joan zen eguna eta gustura geratu ziren jendearen parte hartzearekin.

Eguraldia lagun, giro ederrean igaro zen jaia eta haur eta gurasoek ez aspertzeko moduko egitaraua izan zuten, goizeko hamarretan hasi eta arratsaldeko seiak bitartean.

FESTA

Aia inguru etako mendietan gora hasi zuten bertaratutakoek eguna, goizeko lehen eguzki printzak aprobetxatuz. Parkeetan jolasean aritu ziren umeak; gazteak gora eta behera ibili ziren oinez; eta askok hamaiketako egiteko erabili zituzten atsedenelekuak.

Hamabietatik ordu bata bitartean jaialdia egin zen jendetz lepo betetako frontoian. Gipuzkoako hainbat ikastolako eta eskoletako ikasleek, gurasoek eta langileek ikuskizun berezia eskaini zuten, Porrotx eta Modesto pailazoen eta Txapasen laguntzarekin. Nabarmen tzekoa izan zen Egape ikastolako taldeak egin zuen dantza modernoaren emanaldia.

Bazkaltzeko ordua helduta, 80 lagun eseri ziren frontoian helduen kantu-bazkarirako. Bapo bazkaldu ondoren, euskal kantua abesten hasi eta, antolatzaileek prestatutako lauzpabost abesti



Erromeria zegoen bitartean aurpegia margotu zuten ume askok.

KARKARA

Haurrek egunaz gozatzea zen jaiaren helburu nagusia eta hala ikusten zitzaien, gustura —Lardizabal eskola—

gutxi irudituta, trikitixa atera eta kantuan jarraitu zuten.

Haurrek, berriz, gurasoek etxetik prestatuta ekarritakoa bazkaldu zuten. Gurasoek lasai bazkaltzeko aukera izan zezaten, Sortzen-Ikasbatuazeko Euskaraz Mintzako begiraleek zuzendutako haurrentzako tailerrak izan ziren, eta horiek eman zieten umei bazkaltzen ere. *Haurrek egunaz gozatzea zen helburu nagusia eta hala ikusi genituen, gustura.* Horrela adiera-

zi digute Lardizabal eskola-koek.

Jaiari bukaera emateko Modestorekin erromeria izan zen frontoian. Ordurako jendegutxiago bazen ere, batzuk oraindik gogotsu zeuden eta saltoka eta dantzan aritu ziren 18:00ak arte.

24AN, JAI A IRUÑEAN

Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteak urtero Euskal Eskola Publikoaren jaia antolatzen du eta, aurtengoa, maiatzaren 24an egingo da Iruñeako Takonera parkean. Aurtengo festaren leloa *Bizi Euskal Eskola* da eta Antsoaingo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeari dagozkio antolakuntza lanak. Jai horretako egitaraua oraindik jakinarazi ez duten arren, kale musika, eskulanak, dantza, pailazoak, rock kontzertuak eta askoz ere gehiago izango dela esan dute dagoeneko.

AIAKO LEHIOA

Zarauztar bat Aian

Badira dagoeneko hila-bete batzuk lan kon-tuengatik Aiara joaten hasi nintzela. Zarauztarra izanda, noski, nolabaiteko erreparoarekin eta birritan pentsatuta hartu behar izan nuen erabakia. Badakizue: Aiakoekin kontuz ibili beharra dago, kar-kar.

Baina hori sorpresa nire lehen lanegunean! Guapo-guapo jantzi eta tramankulu guztiak hartuta etxe azpian dudan autobus geltokira abiatu nintzen, Aiako Landabus autobus zerbitzuak Zarauzko Urbanoak bezainbeste gelto-ki baititu eta SMS bat bidali eta hantxe agertu zitzaidan etxe pean: mikrobis berri modernoa punta-puntako teknologiaren laguntzaz, SMS, Internet edo telefono bidez eskatu daiteke-eta zerbitzua.

Bada, beno, arnasa hartu eta hara abiatu nintzen Aiak eskaintzeko zituenak ikustera.

Ai ama! Hori bidaiatxo hori, bazkaldu nituenak dantzari ibili ziren Aiara iritsi artean, autobus zerbitzuaren teknologiak oraindik ezin izan baititu Aiara bideko kurbak

zuzendu. Beno, ezaguna nuen jada sentsazio hori, urte batzuk atzera behin baino gehiagotan joana bainintzen hara. Baina iristean ikusitakoa, nik ez nuen ezagutu. Xarmaz eta harmoniaz eraiki eta konbinatutako etxe txikiak, kolore ezberdinen kontrasteak, garai bateko galtzadek ematen

duten elegantzia; Obaba moduko herri berezi baten sentipena iradoki zidan begi aurrean nuen paisaiak.

Eta a zer nolako kultur etxea! Zarautzen bertan inbidiaz begiratzeko modukoa, zein jende jatorra, beno dene-tik, leku guztietan bezala, bai-na beste xarma batekin, herri txikiek ematen duten hurbil-tasunagatik, agian.

Beno, beno, hainbestelore botatzeak agian estraditazio arazoak ekarriko dizkit eta beraz, nahikoa gaurkoz.

A ez, barkatu, beste gau-zatxo bat bakarrik: Aian ige-rileku ederra egongo da bai, baina Zarauzko hondartza, hori bai elegantzia!

Ze, inbidia pixka bat ematen du, ezta?

INÍGO AZPITARTE

Xarmaz eta harmoniaz eraiki eta konbinatutako etxe txikiak, garai bateko galtzadek ematen duten elegantzia. Obaba da Aia

Aian igerileku ederra egongo da bai, baina Zarauzko hondartza, hori bai elegantzia! Inbidia pixka bat ematen du, ezta?

TXOKOAK ETA JENDEA



Oriotarrak nagusi finalean

Aurreko zenbakian aipatu genizuen 5. eta 6. mailako neskak Zarauzko hondartzan jokatu zen txapelketaren finalera iritsi zirela eta aurkariak Orioko Herri Ikastolako neskak izango zirela. Finalak kolore bakarra izan zuen, oriotarrak erraz nagusitu zirelako; baina politena jokalarien arteko kiroltasuna izan zen, sarritan guraso batzuek galtzen dutena, zoritxarrez. Hemen dituzue bi taldeak blai eginda, baina pozik, jokatu ondoren. Zorionak denei!

*Erromantiko
jarrita, ibaiak
itsasoaren adarrak
direla esan daiteke,
enbor nagusi eta
sendo baten
adarrak,
mendietaraino
iristen diren adar
luze eta okerrak.
Baina, interneteko
uretan nabigatzen
erromantizismoak
alde egiten du
Ingurumen Hiztegi
Entziklopedikoan
horrelakoak
irakurrita...*

HERRIO NATUR TALDEA

Itsasadar: *itsasoko urak barneratzen diren kostaldeko haran estua. Glaziazioen ondoren itsas maila igotzearen ondorioz eratuak dira eta lehorrerantz barneratu ahala sakonera txikiagoa da, fiordetan ez bezala.*

Definizioa bigarrenez irakurri, eta ondorio batera heldu gara. Sartu eskua errioan, eta eraman ahora gero; ura gazia ez badago, ez gaude itsasadarrean. Proba hori, bistan da, itsasoak ibaiari bisita egiten dionean egin behar da, eta ez alde egiten duenean!

EUROPARAINOKO ADARRA

Eusko Jaurlaritza Gasteizen bizi da, eta han ez dago itsasadarrik. Jakina, itsasoaren ondoan daude soilik itsasadarrik; beraz, Euskal Herriko herri gutxik dute itsasadar bat! Bada, Oria ibaiko itsasadarreko hainbat gune babestuta daude, horietan animalia eta landare oso bereziak bizi direlako. Horregatik Natura 2000 sarean sartzeko propo-



HERRIO

Itsasoaren adarra: urrea izena, altxorra izana



Putzu izkinatik paseatuz egin ditugu argazki hauek denak Herrioko kideek eta Ana G. de Txabarrik. Begiak zabalik eramanez gero, erraza da altxor horiek ikustea.

samena luzatu zuen 2003ko maiatzean Eusko Jaurlaritzak Europara.

Etxe aurrean, esaterako, urrutira joan gabe ere, padura eder bat dugu. Lehen erabilitako hiztegi berberak padura zera dela dio: *estuario epel eta hotzetan, landare-elkarte bereziak hazten diren marearteko eremu lau eta zingiratsua. Ur gazi eta gezaren nahastearen ondorioz, gazitasun-ezaugarri bereziak ditu, eta bertako landare eta animaliak gazitasun-aldaketa handiak jasateko moldatuta daude.*

Eta oraingoan beste ondorio honetara heldu gara: hemen ditugun bizidunak ez

dituzte Gasteizen, itsasorik ez dutelako; ez dituzte Getarian, itsasoa eduki arren, ibairik ez dutelako; eta ezta ere Donostian, itsasoa eta ibaia izan arren, padura suntsitu egin dutelako.

ERRINOZERO BELTZAREN ADARRA

Batzuek natur balioa ikusten diote itsasadarriari: Eusko Jaurlaritzak, adibidez. Beste batzuek aisiarako balioa aitortzen diote, esaterako, arraunlari batek, Eder Etxeberriak. Beste batzuek itxura dute gustuko, eta paisaia balioa aitortzen diote zenbait herritarrek, Rufino Gonzalez de Txabarrik, esate baterako. Rufino

Eizagirre bezalako arrantza-leek, berriz, ustiatzeko balioa duela badakite. Eta beste hainbatentzat balio historiko eta kulturala duen lekua ere bada itsasadarra: horrela ikusten du Ana Gonzalez de Txabari historia irakasleak. Ondo begiratzuz gero, guztien esku dago zerrenda hori luzatzea.

Gainera, arnasten dugun airea ematen digu itsasadarra, padurek oihan handienek baino oxigeno gehiago askatzen baitute atmosferara; edaten dugun ura garbitzen digu, errio ondoko landareak depuradora naturalak dirata; zoritxarrez, hondakinontzi modura ere balio izan digu, zakarrez bete dugu-eta...

Eta halako batean, auskalo nork, esan zuen errinozero beltzaren adarra hauts bihurtuta afrodisiakoa zela. Eta han joan ziren guztiak errinozero beltzakehizatza. Izan ere, ez dakigu zerk edo nork duen balioa, ikertzen edo ezagutzen ez den arte. Eta horra besteren batek itsasadarriari ikus dakioken balioa: balio ezezaguna, ezagutzeko falta zaiguna.

Zeren, nork daki gaur aipatu ditugun balio horietaz guztietaz aparte etorkizunean gehiago ez ote diren izango? Nolakoak izango dira balioak? Guztia al dakigu, bada? Ez al du itsasadarrek sekreturik gordetzen?



ADARRAREN PUNTAK

Jaio da: Aizkorriren magalean, Zegaman

Luzera: 66 km

Arroaren azalera: 912,86 km²

Itsasadarraren luzera: 11,1 km

Itsasadarraren sakonera: 0-10 m artekoa

Batez-besteko ur-emia: 25,7 m³/s

Itsasadarraren izendapena: Oriako Itsasadarra GKL ES2120010 (Garrantzi Komunitarioko Lekua) 2003. urtean

Hedadura: guztira 184 Ha ditu; 84 Usurbilen, 76 Orion eta 24 Aian.

GKL izendatzeko arrazoia: garrantzi komunitarioko 10 habitat ditu, horietatik 2 lehentasunezkoak dira.

Beste babes-maila batzuk: Natur intereseko Eremua LAA (Lurralde Antolamendurako Artezpideak)

Hezeguneen LAP (Lurraldearen Arloko Plana): Oriako Itsasadarra (A1G4) Ingurugiro Hobekuntzarako Eremua.

PUNTAREN PUNTA

Oria eta Orio izenak antzekoak dira eta, agian, ez da kasualitatea. Oria deitzen diogu errioari eta, dirudienez, *aureatik* –latinez urre esan nahi du– edota hori koloretik dator kio izena. Kolore horretakoa ikusiko al zuten ibaia gure arbasoek?

Gaur egun beste kolore batzuk ikus daitezke errioan, baina ingurua bai *aureo* ikusten duguna: herriko kaleen izenak hori koloreko xaflatan idatzirik; herriko denda eta jatetxe askoren errotuluak, horiak; herriko bazterretan dauden tolo horiak; traineruaren zein balkoietako ikurrinen kolorea...

Argi dago, Orio eta Oria loturik daude eta bata ez da ulertzen bestea gabe.

NATUR BALIOA

Padurek garrantzia dute, bereziki, hegaztiekin pausatzeko eta bazkatzeko erabiltzen dituztelako. Oriako itsasadarra ez da gutxiago, eta migrazio garaian hegaztiekin hartzen dute protagonismoa paduran: lertxunek, lertxuntxoek, amiamokoek, espatulek, ahateek, limikoloe, ubarroiek, martin arrantzaleek, lezkariak...

Baina gure arrantzaleek ongi asko dakiten bezala, arrain bereziak ere badabilta gurean. Izan ere, ur gaziko, geza-ko eta gazi-gezako espezieak batzen dira itsasadarrean. Bakar bat aipatuko dugu, ez luzatzeagatik: Atlantikoko izokina.

Eta benetan bakarrik dagoena da baso-igel gorria: due-la gutxira arte Motondora hurbiltzen zen ugaltzera. Itsas mailan ugaltzen zen leku bakarra zen Motondo.

Animalien atzetik joateko gogorik ez duenak, baina itsasadarrak dituen altxorak ikusi nahi dituenak hortxe dituzten landareak: altitud baxuko belardiak, paduretako landaredia, espartinak, ibai ertzeko basoak... Motondon dagoen haltza eta lizar basotxoak, esaterako, ikusgarria da.



Hiztegiek asko dakitela gauza jakina da, baina, bizitza guztia itsasadar baten ondoan bizi garenok jakingo dugu, bada, zerbait itsasadarrei buruz! galdera egin dugu: zer da zuretzat itsasadarra?



RUFINO G. DE TXABARRI
HERRITARRA

Orain ustelduta dago dena. Lehenago bazen nahiko angula harrapatzen zen lekua, denetik harrapatzen zen. Orain angula joana dago eta dena akabo, kutsatuta dago. Alferrikan, estropadak joka-

tzeko eta horretarako bakarrik. Gainontzean arrainik ez dago.

Baporea amarratu eta gero errioan arrantzan ibiltzen ginen. Neguaz gero nahiko angula harrapatzen genuen errioan. Orain jubilatuta, bistagustatu egiten zait eta paseoan ibiltzen naiz, gustatu egiten zait eta errio bazterra.

Hondartzara paseatzen dut, Ortzakara gutxi, hori dena ustelduta dago, errio dena galduta dago. Angula eta angila asko harrapatzen zen. Euri urarekin etortzen zen angila, urzikinarekin: gau batean 30-40 kilo harrapatzen ziren. Nahiago dut herri barruan baino errio bazterrean ibili.

EDER ETXEBERRIA
ARRAUNLARIA

Niretzat itsasadarraren balioa? Ba, kalkula ezina, nire bizitza guztiz markatu baitu. 11 urte-ekin arraunean hasi ta 23 arte, milaka kilometro, eta bakarkako ordu pila. *Bajaman* ostraerak diren mamu

handien beldur, mareabete- an gozatuz –zenbat aldiz amets egin dugu mareak ez zuela berriz behera egingo? Zoragarriak dira bazter txiki guztiak. Aginagatik etor naitenke begiak itxita Mapil, Intxaurreta, Saikola, Salmaristi, Marrota, Ortzakara... Ni kirolari egiten lagundu nau eta

bertako bakeak emandako erreflexio mometu kalkulazinek ez daukate preziorik.

Ea datozenek nikatera diodan zukua ateratzen dioten. Mundu guztiak ezagutu beharko luke zergatik den itsasadar hau arraunlarien sehaska.



RUFINO EIZAGIRRE
ARRANTZALEA

Itsasora oso gutxi ateratzen naiz, errioak gehiago betetzen nau. Hasi txipiroiak direla, lupiak direla, amuarrainak direla, angulak direla... hor ibiltzen naiz. Hala ere, lehen izkira baldeka bat, balde erdi

bat izkira, arrantzara joaten ginen bakoitzean ekartzen genuen. Gaur egun atzaparkada bat izkira harrapatzeko bi-hiru ordu pasa behar dituzu. Lehen kiloka harrapatzen ziren angulak gaur egun gramoka harrapatzen dira. Gure bizimodua putzua izan da. Gure ama zenak esan izan du

izurdeak Saikola inguruan ikusia dela. Guk odolean darabagu. Tristeia da, baina joan da...

ANA G. DE TXABARRI
HISTORIA IRAKASLEA

Izatea bera ere zor dio Oriok errioari. 1379an, bertako biztanleek eskatuta sortu zuen Juan I Gaztelako errege Oriok eta garai berekoak dira Usurbil eta Lasarteko burdinola handia. Marearekin batera egiten zuten gora alek hara egurra eta mea garraiatuz, beherakoan burdinezko tresnak eta lanabesak ekartzen zituzten: errio hustu eta putzu egiten zen marearekin eta handik etorri zitzairen aberastasuna eta bizitzeko aukera erriberetako herrixkei. Errotak, olak, ontziolak... gune ekonomiko garrantzitsua izan ziren gure historian, horiek

esker egin ziren itsaso zabalera joateko ontzi gero eta handiagoak gero eta urrutia- go iristeko, ozeanoa zeharkatu eta Ternuaraino. Horrela egin zen Oriok herri.

Erdi Aroan mendian egiten ziren bideak, eta lan astu- na izaten zen Gipuzkoa beza- lakolurralde aldapatsuan sal- gaiak eta merkantziak garraiatzea. Donostiatik, Andutik barrena zetorren gal- tzada zaharrarekin konpara- tuta autobidea zen Orioko itsasadarra: ala handietan sar- tuta edozein gauza eraman zitekeen errioan gora eta behera marea aprobetxatuz. Gutako askoke ezagutu ditugu alak, arraun bakarrekin era- maten ziren ontzi zapal

horiek, hain egokiak azaleko uretan ere ibiltzeko. Oriaren bazterretan hantxe daude alu- neak, aurreko egurrezko garai- ko lekuko ixilak. Oraindik ere Salmaristiko alunean ikus dai- teke behiak eta bestelako ganadua eramateko ala zabal- zabalak.

Oriotarrok egiten dugun euskarak ere antza handia- goa du Aginaga, Usurbil edo Lasartekoarekin gertuago dugun Zarauzkoarekin bai- no, eta horrek garbi asko era- kusten du norekin izan dugun, betidanik harreman estua- goa: errioan gora ditugun azuoekin, dudarik ez.

Zer garen jakin eta eza- gutzeko putzura begiratu behar dugu oriotarrok.



Zer garen jakin eta ezagutzeko putzura begiratu behar dugu oriotarrok

KARKARA
20 urte

Zilbor-hestea

Orain egun batzuk, kultur etxean eman nuen hitzaldian, Orion bizi izandako haurtzaroaz eta Zarautzen nabarmendu nituen desberdintasunez mintzatu nintzen, besteak beste. Haurtzaroa gugandik urruti dagoen sasoi bat da helduontzat. Galdu genuen denbora bat. Baina haurtzaroa bada galdutako leku bat ere ordu arte bizi izandako herriatik txikitan urrutiratzen den batentzat. Nire kasua da. Paradisutik botea bezala sentitzen da halako ume bat eta, horregatik, literaturan toki berezia dute umetan etxez, lekuz, nazioz aldatu behar izan zuten idazleen lanek: badirudi oroitzapenaren laguntzarekin kitatu nahi dutela izan zuten galera.

Toki berri batera joateak dakarren desplazamendua horregatik da beti melankoliaren eragilea. Are gehiago ume batentzat: toki berriak errekonozitzen hasten zaren



ANJEL LERTXUNDI
IDAZLEA

bitartean –toki berriak familiar bihurtu artean–, atzean utzitako lekuak berritzen eta imajinatzen dituzu etengabe; lagun berriak egin artean, lagun zaharrak gogoratzen dituzu; zirkunstantzia berrietara ohitu bitartean, zirkunstantzia zaharrak gogoratzen dituzu eta mamurtzen.

Iraganaz, gertatu zaigunaz, pasatu denaz mintza-

tzeko, memoriak egiten digu, lauso artean, harainoko bidea, eta nik ere, urtetan, memoria izan nuen Oriorekin lotzen ninduen zilbor-heste nagusia. Memoriak oso sarri eramatzen ninduen Oriora, eta memoriari esker, oso bizi gordetzen ditudan oroitzapenak koipeztatzen nituen. Eta Orion ditudan familiakoekin eta lagunekin elkartze hutsak, edo Oriorekin zerikusia zuten kontuek memoriaren errotari eragiten zioten.

Urteak egin nituen oroitzapena nuelarik Oriorekin eta oriotarrekin lotzen ninduen ia zilbor-heste bakarra. Behin, ordea –hogei urte pasatu dira ordutik!–, KARKARA aldizkaria iritsi zitzaidan Zarautza. Nork bidali zidan, nor gogoratu zen nitaz, nori zor diodan oparia, ez dut arrastorik. Baina bada ondo gogoratzen dudun egun hartako kontu bat: asko harritu ninduen aldizkariaren itxura txukunak. Opari hark, gaine-

ra, segida izan zuen, aldizkaria jasotzen hasi bainintzen zintzo-zintzo etxean, eta ordutik honantz, memoriaz gainera, KARKARA izaten dut aldizka-aldizka Oriorekin lotzen nauen bigarren zilbor-hestea.

Bi opari nagusi egiten dizkit niri KARKARAK: batetik, herriaren gaurko bilakaeraren ezagutza —albisteekin, erreportajeekin, hausnarretekin, debateekin—; bestetik, aldizkaria jasotzen dudun aldiro, txikitan ezagutu nuen hainbat jende eta oroitzapen sartzen da gure etxean aldizkariarekin batera, aldizkarian agertzen diren garai bateko argazki, pasadizo eta kontuen aitzakian.

Eta egia aitortuko badizuet, nik eta nire memoriak oso solas atseginak izaten ditugu hain konpainia noblean.

“Urteak egin nituen oroitzapena nuelarik Oriorekin lotzen ninduen ia zilbor-heste bakarra. Behin, ordea –hogei urte pasatu dira ordutik!– Karkara iritsi zitzaidan”

ARKAITZ Taberna
Pinxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak
BIDEA LAZARTEA 4
Tel: 943 83 16 57

bodegasERRASTI, S. L.
Eskualderako barnatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri-naturra
Bodegas Gailur: Señorío de Lurgan
Gailur eta Ardanategi,
Arabar Errioxako ardoak
Eusko Gailur, 46. ORIO • 943 83 03 86 / 83 69 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalgailur.net

Joseba Ostolaza TAXIA
24 ORDUKO ZERBITZUA
Tel: 646 510 288
Baxoalde, 9 ORIO

Automóviles ZARAUTZ
OTROEN ZERBITZU ORAZULA
Tel: 943 83 13 50

Carmen eta Txomin ARRAZDECIAK
Tel: 943 83 05 37 / 943 83 27 47

ADARRETATIK HELDUTA

Ikastola, herriaren zerbitzura

Bigarren Mundu Gerra bukatu ondoren, nazioarteko komunitateak mugarri sendoak finkatzea erabaki zuen ordura arteko sarraskiak saihestearren; hala, 1948an, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala jaso zen. Tartean den hezkuntza-eskubideak honako ezaugarriak ditu:

a) Norbanakoei eta erakundeei irakaskuntza etxeak sortzeko askatasuna aitortzea, instituzio publikoek sortutakoez at.

b) Gurasoei seme-alabentzako hezkuntza eredua aukeratzeko eskubidea aitortzea.

c) Herri erakundeek, instituzio publikoek sortutako zentroetatik at, beste hezkuntza eredua aukeratzeko askatasuna errespetatzea.

Horrela, hezkuntza herri erakundeen edota gizarte ekimenen bidez eskaini daitekeen zerbitzu publiko gisa zehazten da, herri erakundeak legeak ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikastetxeak laguntzera behartuta daudelarik.

Duela 38 urte, bazen Orion eskola bat, *nacionala*, egun publikoa deritzona. Herri ekimenez eta aipatutako eskubideetan oinarrituta beste ikastetxe bat sortu zen, Orioko Herri Ikastola, herriaren zerbitzura egongo zena eta irabazi asmorik gabea.

Gaur egun, Ikastola Eusko Jaurlaritzaren zentro kontzertatua da, eta herriari



JOKIN IZAGIRRE

HERRI IKASTOLAKO LEHENDAKARIA

eskaintzen dion zerbitzu publikoa dela eta, 2004az geroztik Eusko Jaurlaritzak Herri Onurarako Erakundea izaera aitortzen dio. Oriotarren ahaleginari eta lanari esker, Ikastolak herriko ikasleen %80ri ematen dio zerbitzua, 54 langile ditu eta guraso kooperatiba da.

Haur kopurua ikusita, beharrezkoa dugu DBHko ikasleentzeraikin berri bat; adin bitarte horrentzat herrian dagoen eskaintza bakarra Ikastolarena da.

Argi utzi behar da, DBHko eraikin berria Udalarena den eta izango den lur sailean eraikitzen ari garela. Uda-

lak 50 urterako erabilpen eskubidea eman digu, nahiz eta legeak 99 urterako aukera eskaini. Eraikin berriak Agenda 21ean antzemanda-ko areto berri baten premia-ri ere konponbidea emango dio; beraz, herritar guztientzat zabalik egongo da.

Eraikin honek 3 milioi euroko kostua du; Udalak milioi bat jarriko du eta Ikastolak 2 milioi jarri beharko ditu. Horretarako, dugun guztia (Kilometroetako eta ikastola txikien salmentetako diruak) eta gehiago (Hezkuntza Sailetik eta maileguetatik lor daitekeena) ipini beharko dugu. Beraz, dirua jarriko dugu eta ez gara ezeren jabe izango. Horra hor Ikastolaren *pribatutasuna*.

Gainera ezin dugu ahaztu, Udalak gaur egungo kiroldegia egiteko lurra behar zuenean, Ikastolak hezkuntza erabilpenerako zuen lur eremuaren murrizketa jasan zuela.

Hori guztia dela eta, nola ez du ba Udalak diru ekarpenik egingo? Horren aurkakoa litzateke benetan kezagarria.

Esan behar dut guraso, irakasle, langile eta ikasle guztiok, Ikastolari bultzada berria emateko zilegitasunez, indarrez eta ilusioz betetagaudela. Urrats berri honekin herriko haurren heziketak irabazten du, herriak berak, beraz. Herri osoarekin konpartitu nahi genuke une goxo hau. Bejondaigula denoi.

NIRE HONETAN

Animatzen da norbait?

Duela bi urte, hauteskunde garaian, lagun batzuekin naziotasun eskubidea zein alderdik bermatuko ote zigan eztabaidan nintzen Kalakarin. Zerbeza batzuk hartuta, Udal hauteskundeak zirela konturatu ginen; eta hausnarketan hasi: *Zertarako behar ditugu herrian naziotasun identitatea duten siglak? Zertarako, ez badigute Orio alternatiborik aurkezten? Ez hauteskunde programarik, ez proposamen berririk ere... inork ez du ezer aurkezten. Zer eskaini digu EAJk? Eta EAEak? Bla, bla...*

Bada, lehenengoak 857 oriotar bereganatu zituen, eta bigarrenak, berriz, 689.

Orain berriz galdetuko dizuet: zertarako behar ditugu, herrian, goitik beherako hierarkia duten alderdiak? Zentzurik ba ote?

Herri plataforma behar dugu, herria mila sektoretan banatuko ez duena... eta helburu bakarra izango duena, beti: *Zer behar/nahi du Oriok?*

Ezer ere ez baitu balio herriari hitza eman ondoren entzungorrena egiteak.

Berandu konturatu ginen, baina garaiz gaude hurrengorako.

Enaut, nola zio kantak? *Herriak bakarrik salba dezake herria; ezta?*

MIKEL ARANZABAL

ERROTA

- Eztei ospakizunak
- Banketenak
- Karta zabala
- Egunko menua (lanegunetan)
- Oheak

Tfnoa: 943 83 54 65

Igo zaituz haize berrietara!

Galeria I

943890416-677 49932
galeria1orio@hotmail.com

MOILA BAZTERRETIK

Hormigonera eta peajeak



JON AGIRRESAROBÉ TORROTXO

Ramonesen kanten tankeran joaten zait eguna, di-da. Goizeko lehen kafearekin *one, two, three* errituala egin eta egurra. Ezin iluntzera iritsi. Askotan pentsatzen dut Azkuneko horminogera baten atzetik bizi

nahiko nukeela. Akabo *benga, moituai* eta *kenduai pare-tik*. Akabo presak: leihoa jaitsi, besoa metro erdi atera eta harri txintzarrek parabrisa nola zartatzen duten kontenplatu. Ramonesen diska *eject* eta norbera hasi kantari: *y cuanto más aceleró...*

Baina autopistako sarrera-irteerarekin akabo hormigonera, haserreak eta aitzakiak. Ai, errepide nazionala gurdi bide bihurtzen denean.

Prest dago peajea obrak bukatu aurretik. *Aupa. Tori tiketa eta bueltak. Aio.* Ni ere peajea lan egin naiz, udako lanetan, autopista azpian aparkalekuak obratzen. Haiek garaiak. Euskadi Gaztea, Frantziako Tourra eta denborapasak. Libururik ez, esaldi bakoitzaren amaieran bikamiotia aldera begiratu behar

izaten zen inor bazetorren ikusteko. Lotsatien zat terapia onena, gutxienez, bizitzan behin denok egin beharreko lana. Ordaindu nahi ez dutenen aurrean lotsagabetu eta tranposoen berri walki-talki bidez udaltzainei eman. Orioko Udala zerbitzatu eta defendatu ikasketak ordaintzeko.

Orain TAO makina batek ordezkatu ditu Urko, Ane, Ibai, Patxi, Txomin, Gabi eta Amenabar. Eta gogoan ez ditudanak. Makinari pintadak eta ostikadak jotzen dizkiote.

Jendea bizikletan txistu jotzen hondartzara. Eguzki ordu handirik gabe utzi izan zuen bakarren bat gure konpainia beharrak. Ezer kontatzeorik gabe, ez dut sekula elkarrizketa hain besteluzatu. *Bihar autoan etorriko nauk. Bai eta a toda ostia eta haut-*

Sarri pentsatzen dut Azkuneko horminogera baten atzetik bizi nahiko nukeela. Leihoa jaitsi, besoa metro erdi atera eta harri txintzarrek parabrisa nola zartatzen duten kontenplatu

sa harrotuz pasako haiz. Hondartzara ere korrika.

Peajea lan egin edo Azkuneko horminogera bat gidatu beharko genuke bolada batean nola bizi garen kon-turatzeko.

jaletxea
logelak
gazteategi
Elkano auzoa
943 13 16 06

HAIZE BERRI
elkano-jaletxea-kabategi
Plater kanbintuak,
buktak,
hamburgerak,
ratiok,
eguneko menua...
eta etxera eramateko zerbitzua!
Bida Irratzea: 9.00-12.00 / 18.00-22.00. Astelehenetan itxia.

PERTS ANAK
A
X
O
M
A
Z
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 13 25 01 Murgiondo 600 70 52 77

ITZIAR
kirolak
Tel. 943 83 31 03

Orioko Herri Ikastola
Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe
aseguru artokaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa
Tel. 943 83 41 25 Fax. 943 83 54 88 itxasadara@itsasadara.com
Ibai Ordo 4. beheko 200 10 Ordo

Joana Murgiondo
Aseguru-agerentza
ASEGURUAK
CARASS, ELIVETI, LACORSE & CIA, S.A.
Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA
Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

KOLON TXIKI
adibidea
Herriko Enkargatua, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

tzekotan izan ginela kontuan hartuta, gutako edonor egoera berean izan zitekeela etortzen zait burura. Ez da bidezkoa, egoerari aurre egiteko balentriarik ez duelako Udalak, gazteok ordaindu beharra; alternatiba duinik ezean, okupazioa ez da delitu.

Gauzak horrela, Putzuzulon askotan izan naizelako, mozkortu, kontzertuak ikusi eta eman, ondo pasa, amestu... Orioko gazteoi beti laguntzen digutelako eta, batez ere, lagun ditudalako, maiatzaren 8an, 18:30ean, bertan izango naiz nire elkartasuna erakutsiz.

MIKEL

Liburuak
esku artean

Zuetariko askok trastelekua liburuz betea izango duzue, irakurzale handiak zaretelako edo hazi diren zuen seme-alabenak han gorde dituzue-lako... aukera ona duzue orain liburu horiek besteei eskaini eta eskutik eskura pasarazteko.

Liburu horiei beste auke-
ra bat eman nahi dieneztat
azoka modukoa antolatu du
Farfara elkarteak eta bertan
parte hartzera animatzen zai-
tu.

Erraza da: zure liburuare-

kin azaldu eta irakurri ez
duzun beste bat hartu haren
ordez. Gorde nahi ez dituzun
beste liburuak ere Farfararen
lokalean utz ditzakezu: nobe-
lak, ipuinak, komikiak... dene-
tik jasotzen dugu, entziklo-
pediak izan ezik. Trukaketa
hori azken astelehenetan Far-
faren lokalean egin ahal
izango duzu hilerio –Iturbide
kalea 7 beheka, 18:30-20:00.

Lokal berean hileko 1. eta 3. astelehenetan Farfarako irakurketa taldeko kideak elkartzen gara guztiok irakurri dugun liburu beraz hitz egingeko. Gurekin batera gauza bera egin nahi bazenu, atek zabalik dituzu eta gustu han-

diz hartuko genuke zure parte hartzea.

FARFARA BIZILAGUN ELKARTEA

Txaketa falta

Udaberri Festan Kosta Taile-
rrean izandako kontzertura
txaketa beltz bat eraman nuen,
baina ateratzean ez zegoen
han. Nirea ez zen beste tx-
aketa beltz bat zegoen han.

Nirearen berri duenak dei-
tu dezala mesedez 657 70 19
11 telefonora, mila esker.

IÑAKI

[illegible]

 **AKITIA**  **AKOBE**

ELEKTROGAILUAK ETA SUKALDERO ALTZARIAK

Juan Albizu

AKOBE - TEL: 945 461 212 - 47
30000 ORD

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaia S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 015 8328 93 / 83 08 80. Muzikorra: 656 28 30 01 - 656 28 29 99



 **AMILBIA**
ENTZIOLEK, S. L.

korik probatzen dituzten
eta instalazioak

gizakia erabakitako
arazoentzako



Olasoagagga buzoa, 52
34 943 83 08 29
faxi 34 943 89 40 81
amilbia@amilbia.com
www.amilbia.com

Kinkiladenda - Uma arropa

argine.

www.lasnet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREN



ALT XERRI

Karta ezberdina

*Asteburua, eguerdi eta gascian,
muru berriak*

943 83 07 62

ARISTERRAZU
jatebxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21



Lanak ahaztuta, egun batez

Ez dakigu goiko argazkia zein urtetakoa den, bertan agertzen direnek ezin izan diote tankerarik hartu eta. Non aterea den, ordea, gogoan dute: Baserrineko enpresak, Muebles Esnalek, bazkaria ematen zien urtero langileei, urte osoan egindako lana eskertzeko. Horietako bazkari batean egin zuten fotoa, ordurako bapo janda zeudela, kopak mahaian, purua eskuan eta

kantuan, gitarra lagun zutela. Jai giro ederra izaten zuten, itxura denez.

Ezkerretik hasi eta mahaia buelta emanez, hauexek dira argazkian ageri direnak: Mari Karmen Esnal, Izaskun Arruti, Manuel Urkizu, Angel Lekuona, Gabriel San Sebastian, Inazio Lazkano, Antonio Aldaz, Antxon Esnal, Angel M. Esnal –atzean–, Juanito Maritxalar, Manuel Lizaso,

Gabriel Loidi, Pello Etxeberria, Agapito eta Jesus Xoxua.

ARGAZKIA: IMANOL URKIZU
INFORMAZIOA: MANUEL URKIZU
ETA IZASKUN ARRUTI

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

ardoak, urdailak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

943 83 09 84 aita Iertxundi, 36
ORIO

Izarna

**ERREBELATU DIGITALA
MOMENTUAN**

ESKaintzek
HARRITUKO
ZAITUZTETE
ETORRI!

Bideo Produktzioa

TIEN 21

KRITIKA



Martin, baxuarekin, eta Eñaut, kitarrarekin, taldeko kideetako bi dira.

KARKARA

Punkiak bai, baina ez dira dioten bezain desastreak

Kosta Tailerreko harro-bitik harribitxi bat ater da berriro ere: Eñaut Martí, Martin Zulaika eta Jon Dorronsoro oriotar gazteek eta Hodei Larrañaga zarauztarrak osatzen duten *The Sastre* taldea.

2008ko udan hasi ziren elkarrekin jotzen eta, Orion bertan, aurretik izan ziren *Harri el manko* edota *Silikosis* punk taldeen arrastorari jarraitzen diote.

Otsailean, entsegu bat grabatu zuten lokalean eta, horren soinu txarra ez zuela ikusita, 6 abesti jarri dituz-

te interneten, gaztelaniaz eta ingelesez, tartean *RIP* talde mitikoaren *No hay futuro* abestia: www.myspace.com/thesastre web orrian daude entzungai. *Vacias palabras*-eko esanak barreneraino heltzen dira, bakarra aipatzearen.

Bateria erritmo sinpleek, kitarra zikinek, baxu azkarrak eta Martinen marru afonikoek -punk gehien moduan ez baitaki kantatzen- kritika soziala egiteko balio dien erabateko enplasto ederra egiten dute. Galdetu, bestela, bi hilabete

eskasetan web-gunea bisitatu duten ia 4.000 lagunei. Edota, aukerarik baduzue, agertu maiatzaren 9an Geta-riako gaztetxean eskainiko duten kontzertura, debalde da eta.

Oriotarrok beti izan dugu musikagintzarako trebezia eta *The Sastre* da horren adibide garbia. Izan ere, hemezortzi urte inguru bakarrik dituzten arren, ez dira dioten bezain desastreak, musikan, behintzat. Hortik aurrera...

MIKEL ARANZABAL

IKASLEAK IDAZLE



JONE MORAN |

LHKO 6. MAILA

Frontoia

Orion badugu frontoia, leku onean, herriaren erdian.

Baina nik uste dut teiltatua ez dela hain ona haize boladak, euri zaparradak... direnean ura barrura erori izan delako. Konpontzen ari direla uste dut, lanean ari dira teiltatuan. Bestalde, ez dago batere zaindua. Lurra zikin-zikin egoten da eta aulkiak zer esanik ez!

Pixa usaina egunerokoa da. Komunak oso zikinak egoten dira eta nazka ematen du bertara sartzeak. Berritu eta egunero garbitzea hobe izango litzateke. Frontoian badago sare bat, handia, bere funtzioa betetzen duena, baina batzuk sare jolasteko erabiltzen dute, zintzilikatzeko eta ez dira jaisten norbaitek kargu hartu arte. Badaude beste leku batzuk zintzilikatzeko; paletan, eskupilotan... jolasteko da frontoia. Denok jartzen badugu, lortuko dugu txukun zaintzea.

LEIHOLAN
Aholkularitza teknikoa eta erakusketak

Palatia
Agote Indatxak
Agote, 5.
48140 Zorrotza

Estudioak
San Pionto, 1.
48900 Zorrotza

Alfa Leizorak, 21.
48910 Oroa
Tel: 943 88 46 36

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 41
Tel: 943 83 87 74

LURDES
AMONIBREARI

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“—Munduko dardo txapelketako—lehen 32en artean sailkatu nahi dut parte hartzen dudana edozein probatan, baina batez ere banakoan. Horrek babesleen ateak ireki diezazkizake, noski”

JOSEBA UNANUE

Dardo jokalaria
Sasoian
2009/05

“Sinatu berri dugun hitzarmenean taldearen agiri administratiboak euskaraz egingo ditugula erabaki dugu”

ALBERTO CASADO

Orioko Tabernak-eko jokalaria
Sasoian
2009/05

OSPAKIZUNA



Arantzazura oinez

Apirilaren 10ean 14 oriotar Arantzazura joan ziren oinez, bizkarrean motxila hartuta. Goizeko 04:00etan atera ziren Orioko plazatik, eguraldia lagun zutela—euri zaparradek deskantsua eman duten apirilako egun bakarrenetakoa izan zen eta nahikoa zorte izan zuten—.

Azkarrago edo motelago, baina denak leher eginda, 15 ordu behar izan zituzten helmugara iristeko. Abiatutako guztiak iritsi ziren, ordea, eta bada zoriontzeko modukoa.

ZORITXARRAK!



Eskaera Udalari

Herri euskalduna izaki, Udal Elkartearen Mankomunitatean (UEMA) dagoen herria da Orio, beraz, euskararen erabilera bultzatu eta gure hizkuntzarekiko arreta berezia jartzeko konpromisoa du, besteak beste, Udalak.

Eta hartutako erabaki horren baitan badu zer eginik: euskaraz dauden seinaleak eguneratzeko garaia badela iruditzen zaigu: adibide gisa, bat jartzearen, *zamalana* izan ezik jarri behar litzateke eta ez *zamalana* ezik.

Horiek egokitzea eta txukun jartzea hainbesteko lana ez delakoan, horra gure eskaera.

LUXARBE
Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestuak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfn: 943 33 59 00

Nahikari
HARRI BENDA

Arantzazura Kalea, 35
20100 - Orio
Tfn: 943 33 34 30
www.nahikari.es

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguri agentea

Itzi Ondo, 10 bete-orria
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 67 62
e-maila: zaldua@deseruz-pagafian.es

arantzazura
MIRANDA
barra b. barria

barria eta barria edozein...
behar diren arto barria
egunero dirakiratu

Urdaneta bidea, 1 - 460 42 82 70 - SARATZ

De apañadega
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - Irujo
Tel: 943 13 47 29
ORIO

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremontak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefono: 943 832 36 Eusko Gudari, 5

OROIMENAREN KUTXA

Venimos a Orio y llegamos de noche
estaba lloviendo como es natural
porque en estos pueblos,
cosa muy frecuente
porque está muy cerca de San Sebastián.

Al día siguiente, ya vimos el pueblo
aunque pequeño no parece mal.
Tiene buenas chicas, todas tan bonitas
y caritativas, es lo principal.

Llegó el domingo siguiente
y las chicas pasean ya.
Nos echaban tabaco
para nosotros fumar.
Nosotros agradecidos
de las chicas de este pueblo,
les hicimos unos anillos
para que tengan recuerdo
porque los especialistas
trabajamos con talento
nosotros, agradecidos.

Arreglamos puentes, también carreteras
apagamos fuegos cuando es ocasión
en el pueblo de Orio, los especialistas
dejarán recuerdos de este batallón.

Ya sabemos todos, estar bien tranquilos
que en la nueva España hay que trabajar.
Y nuestros derechos, trabajar con amor
y todo lo perdido se adelantará.

Terminó la guerra, tuvimos desfile
misa de campaña y una gran comunión.
Luego un banquete, fue una cosa grande
que todos bailemos hasta el charleston.

Nuestro alférez, un señor muy bueno
y los sargentos que también lo son.
Unos días antes de hacer el desfile
bien nos practicaron toda la instrucción.

Zubian lanean ari zela asmatuko zituen kantuen hitzak soldadu presoak. Hitzetan ezagun du preso zegoela.

I. ITURAIN

Gerrako kontuak eta kantua

1936ko gerrak kalte handiak ekarri zizkigun: hildakoak bialdeetan. Gerra ondorengo urteak ere gogorrak izan ziren: gosea eta errepresioa. Baina egoera txarretan sortu ohi dira istorio politenak, eta horixe gertatu zen Orion ere. Nafarroa alde-tik erreketek zetoze eta, errepublikaren aldeko soldaduek, erretiran, zubia bota zuten dinamitarekin. Gerra bukatuta, zubia berreraikitzeke, frankistek soldadu presoak ekarri zituzten. Presoek urtebetetik gora pasa zuten Orion lanean. Denbora hartan, jai eta egun edukitzen zituzten lanean, igande arratsaldea bakarrik izaten zuten libre, paseatzeko. Herriko neska gazteak, erdi errukituta erdi

erakarrita, soldadu presoengana arrimatzen hasi ziren, zigarroak ematera eta... Mutilek, esker onez, lanerako zera biltzen kobreakin egindako eraztunak erregalatzen zizkieten neskei. Izan zen mutila gurasoen etxera eramandakorik ere (garai hartan!); baita, diotenez, ezkondu eta mutilarekin bizitzera herritik kanpora joandakorik ere. Harreman haien berri ematen da soldadu haietakoren batek sortutako kantuan; denen artean herriko neskei kantatzen zieten kantuan.

Zubia eraikitzen bukatu zutenean, herriak, agurtzeko, bazkaria eman zien moilan. Zenbat malko ez ote zen egun hartan isuri gure herrian!

Kantu xalo hura oraindik

ere gogoan dute garai hura bizi izan zuten oriotar batzuek. Urte gutxi batzuk gehiago pasata betiko galduko zen abestia, baldin eta Zarauzko mutil musikazale batek, Jesus-mai Lopetegik, Oriora ekarri ez bazigun. Haren ama Maria Salaberriak askotan kantatzen omen zien etxean, eta kantatu ondoren negarrez hasi. Orion, Teresa Solaberrietak ere gogoan ditu kantuko zenbait esaldi, eta haren izeba Felipa Urdangarin zenak oso-osorik kantatzen zuen eskabetxerian. Zarauzko Mariaren antzeko zenbait sentimendu ez ote zituen sortu kantuek, eta kantuan azaltzen diren harreman haiek. Gerrako kontuak eta kantua.

IÑAKI ITURAIN

JAIOTAKOAK

- Axel Larrañaga Arrozpide, Usurbilen, maiatzaren 1ean.
- Patxi Manzisidor Zaldúa, Orion, apirilaren 25ean.
- Noa Aduriz Moran, Orion, apirilaren 18an.
- Naroa Gartzia Garmendia, Orion, apirilaren 15ean.
- Maider Gartzia Garmendia, Orion, apirilaren 15ean.

EZKONDUTAKOAK

- Alberto Sarasola Gonzalez eta Bitoria Eugenia Lope Gil, Orion, maiatzaren 2an.
- Bitoria Barrena Artola eta Iker Aranzegi Murua, Orion, maiatzaren 2an.
- Iosu Lizaso Saizar eta Lide Esnal Rauleaga, Orion, apirilaren 25ean.

HILDAKOAK

- Migel Maria Cardoso Alonso, Orion, maiatzaren 1ean. 65 urte.

Eskela edo urteurrenko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



J. M. GURRUTXAGA, EDURNE MARIN, IDOIA URKIZU ETA J.A. LERTXUNDI | SALATXO ABESBATZAKOAK

“Gure moduko koru gutxi ikusi da Oh, happy day-n”

ETB1eko *Oh Happy Day* saioan parte hartzeko ahaleginetan dabiltza Salatxo abesbatzakoak. *Casttingean* buru-belarri sartuta, kontzertua ere badute igandean Orion.

Zerk bultzatuta parte hartuko duzue *Oh Happy Day*-n?

Zuzendariari otu zitzaien. Lehen edizioan, Hernaniko abesbatzarekin izan zen bera eta guk ere lehiarako kalitatea badugula dio.

Horrez gain, ez gaude oso aberats diruz eta hori izan daiteke parte hartzeko arrazoi nagusia. Joateagatik bakarrik ordaintzen dute eta zenbat eta programa gehiagotan izan, are eta gehiago.

Hala ere, ez pentsa diru faltak behartuta bakarrik joango garenik: gogotsu gaude dugun guztia emateko.

Telebista saio batek balio al dezake abestalde baten kalitatea neurtzeko?

Ezetz iruditzen zaigu. Interpretazioa, afinazioa, letra, kameraren aurrean agertzea... horrez guztiaz gain, partiturarik gabe abestu behar da eta ez gaude horretara ohituta.

Epaileek askotan saioaren interesen arabera argudiatzen dituzte erantzunak, beraz, modu batera edo bestera, ezin jakin epaileen erantzunak zenbateraino izan daitezkeen bidezkoak.

Tira, oraindik *casttingean* ari zarete. Herriko txoko askotan ikusi zintuztegun kamerarekin grabatzen.

Eliza azpian izan ginen, bapore batean... oso irudi onak hartu zituzten eta gu ezagutzera emateko bide ona izateaz gain, Oriorentzat ere publizitate ona izan daiteke.



Artisau Azokan kalez kale abestuko dute Salatxokoek igandean.

KARKARA

Zein abesti aukeratu duzuen aurreratzerik bai?

Dubula izeneko erritmo afrikarreko kantu bat aukeratu dugu. Zuzenean bi sene-galdarrek lagunduko digute danborrekin.

Lehen edizioko talde gehienak gazteak ziren. Danborrekin sorpresa eman nahi?

Gure moduko koru klasi-ko gutxi ikusi da lehen edizioan. Koreografiak egin behar dira, ingelesez abestu... gazteek horretarako erraztasun gehiago dute. Hala ere, baziren horren gazteak ez zirenak ere, eta oso ongi moldatu zirenak, gainera.

Koreografiarekin abestearena nola daramazue?

Ez gaude ohituta, baina ez da egiten dugun lehen aldia ere. Iaz, Katalunian kontzertu batean egin genuen proba, lehen *casttingerako* aukeratu dugun kantu berarekin, eta jendeari ikaragarri gustatu zitzaien. Hala ere, ahal bezain ondoen ari gara prestatzen, huts eginez gero ez baitu ezertarako balioko aurreko lan guztiak.

Bakarlaria ere behar da saioan. Baduzue inor?

Jakina. Sopranoak, kontraltoak... behar den guztira-ko gaude prest.

Igandean emanaldia duzue Orion. Kontzertu hori prestatzeko denborarik kendu duzue kontu honek?

Ez, kontzertuetako abestiak lehendik ere prestatuta izaten ditugu. Pixka bat errepasatzearekin nahikoa da.

Lehiaketa irabaziz gero...

Eromena litzateke, baina lan asko egin behar da horretarako.

Ez gaude oso aberats diruz eta hori izan daiteke parte hartzeko arrazoi nagusia, baina ez pentsa hori denik bakarra

Zenbat talde zarete?

Hamalau aurkeztu gara. Zazpina taldetako bi multzotan banatuko gara eta lehenengoan talde bana joango da kalera. Gero bigarren *castting* bat egingo da eta bertan erabakiko da zein zortzi sartzen diren lehiaketan.

Ahal bezain ondoen ari gara prestatzen, huts eginez gero ez baitu ezertarako balioko aurreko lan guztiak

Eta zenbat abesti prestatu behar dituzue?

Lehen *casttingerako* bakarra eta hurrengorako beste bi gehiago. Badaezpada hiruak hasi gara prestatzen. Lehiaketarako hamar kantu inguru prestatu behar dira, finalera helduz gero.

26 ZERBITZUAK

2009ko maiatzaren 08a | KARKARA

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:14	06:44	07:14	07:44	08:14	08:44	09:14	10:14	11:14	12:14	12:44	13:14	13:44	14:14
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:40		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:00
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:00
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:05	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	08:45	08:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

OHARRA: lanegunetan koadro argiaren arabera autobusak urtebete pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gutxiak pasatzen dira. Koadro honetako orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik daguzkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Lendebusek darma. Zerbitzuan buruko informazioa lortzeko zentzu bide daude:

www.lendebus.com

Tf. 942 24 01 14

sma-e 5280 zenbakia

ITSASOA

Maiatza	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
08	04:42 eta 16:57	10:43 eta 23:00	
09	05:18 eta 17:32	11:19 eta 23:39	☉
10	05:51 eta 18:06	11:54 eta	
11	06:28 eta 18:41	00:17 eta 12:29	
12	07:03 eta 19:16	00:54 eta 13:05	
13	07:39 eta 19:54	01:32 eta 13:42	
14	08:18 eta 20:37	02:12 eta 14:22	
15	09:03 eta 21:27	02:55 eta 15:08	
16	09:58 eta 22:27	03:46 eta 16:05	
17	11:07 eta 23:24	04:47 eta 17:12	☾
18	12:21 eta	05:55 eta 18:24	
19	00:41 eta 13:24	06:59 eta 19:26	
20	01:40 eta 14:15	07:54 eta 20:18	
21	02:32 eta 15:00	08:42 eta 21:04	
22	03:19 eta 15:42	09:26 eta 21:48	

ZAINTZAKO BOTIKAK

MAIATZA

- 8an, Lasa.
- 9an eta 10ean, Larrañaga.
- 11n, G. Artiñano.
- 12an, Azaldegia.
- 13an, Etxeberria.
- 14an, Iriarte.
- 15an, Zulaika.
- 16 eta 17an, Mutiozabal.
- 18an, Azaldegia.
- 19an, Zulaika.
- 20an, Iriarte.
- 21ean, Larrañaga.
- 22an, Mutiozabal.
- 23an eta 24an, Etxeberria.
- 25ean, Iriarte.

Azaldegia: Urdaneta kalea, 8.

943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17.

943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.

943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16.

943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza.

943 83 09 36 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17.

943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea

943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41

943 13 39 94 Zarautz

MAIATZA NATURAN

- Herrio natur taldeak antolatuta:
- Maiatzaren 9an, Angeluko Izadi parke ekologikora buelta goizean.
- Maiatzaren 13an, *Milioi bat kilometro lurrazale* hitzaldia. Hizlaria: Iosu Iztueta bidaiaria. 19:00etan, kultur etxean.
- Maiatzaren 17an, Orioko itsasadarrak piraguaz irteera.
- Maiatzaren 20an, *Naturaren babes* Gipuzkoan hitzaldia. Hizlaria: Zarauzko Arkamurka natur taldeko Jon Zulaika. 19:00etan, kultur etxean.
- Maiatzaren 24an, erromeria hamaiketako eta musikarekin. Iturrarango lorategi botanikoan.

SILO-BOLAK

- Aian, maiatzaren 12an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera, 943 81 65 00ra deitu edo bertako Igorrekin hitz egin: 660 04 97 51.

PODOLOGOA

- Aian, maiatzaren 9an. Ordua hartzeko udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44.

TRASTE ZAHARRAK

- Orion, maiatzaren 13an

**Erraustegiaren aurka**

Erraustegiaren kontrako sinadurak biltzen ari da egunotan, Orion, Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundea. Tarteka, asteburuetan jarriko dute mahaia herriko plazan.

Zaborrei buruzko Lege Proiektua egin du koordinakundeak eta Parlamentura eramateko 30.000 firma behar ditu.

altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira eta nolakoak diran jakinarazi Udalean.

BERTSOLARITZA

- Orion, maiatzaren 8an, Gipuzkoako Eskolarteko 26. bertsolari txapelketa. Bertso

paperen idazketa: 15:00-16:00; bat-bateko saioak: 16:00- 18:00. Orioko Herri Ikastolan, Karelana eta kultur etxean.

- Orion, maiatzaren 14an, herriko bi ikastetxeen bertso saioa. Kultur etxean, 18:00etan.

TXANGOIA

- Maiatzaren 19ean, Baztanera txangoa, Zaharren Babes Lekuak antolatuta. Irteera: 08:30ean, autobus geltokian.

KINTO AFARIA

- Ekainaren 6an, Balea hotelean, 1964an jaiotakoen afaria. Izena ematea: Gabon tabernan, ekainaren 1a baino lehen.

BILERA

- Maiatzaren 18an, sanpedroak antolatzeko bilera. Kultur etxean, 19:00etan.

MENDIA

- Maiatzaren 24an, Gorbeira irteera, Talai Mendi elkarteak antolatuta. Izena ematea: hilaren 21a baino lehen, Uranga burdindegian.

ERROMERIA

- Maiatzaren 10ean, Andatzako Erromeri Elkarteak antolatuta, erromeria Lutxurdio, Aitziber eta Berastegi trikitilarietara.

IDI-DEMA

- Maiatzaren 9an, idi-dema: Jesus Garaia *Misiyua* Zelestino Aburuza *Sorazarretaren* aurka. Alako probalekuan, 22:00etan.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, doako zerbitzua da-eta gurea.

GALDUTAKOAK

- Giltza sorta galdu nuen apirilaren 14an, plaza eta anbulatorioaren artean. Jaso duenak udaltzaingora eramatea edo 943 13 26 52ra deitzea eskertuko genuke.

- Duela aste batzuk ordulari bat galdu nuen plazatik Aita Lertxundi kalera bitartean. Lotus markakoa da eta niretzat balio handikoa. Bilatuz gero, dei ezazue, arren, 943 83 03 97ra.
- Giltza sorta bat azaldu zen apirilaren bukaeran Aian. Larruzko giltzatak du. Jabeak Aiako kultur etxean jaso dezake.

ALOKAIRUA

- Orion bizitzeko lekua alokairuan hartuko nuke, bakarrik ordaintzeko modukoa. Bestela, erdi bana egiteko interesik baldin badu inork, elkarrekin bila

genezake: bizileku@gmail.com.

LAN ESKAINTZA

- Emakume bat behar da uda honetan, goizez, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tf: 620 91 22 01.

LAN BILA

- Giza Zientziak Enpresan lizentziatua naiz, Irakaskuntzarako Gaitasun Ziurtagiria dut eta Haur magisteritza ikasten ari naiz. Klase partikularrak emango nituzke. Tf: 653 704 516.
- Ekitaldietako estrukturak jartzen eta auto pilotuetako

gidaritzan esperientzia dut eta lan bila nabil. Berehala hasteko. Tf: 634 872 383 (Alberto).

- Familia edota edadetuak zainduko nituzke gau eta egun. Eskarmentua dut. Tf: 686 04 27 32.
- Geriatrian titulatu naiz eta edadetuak, haurrak... zainduko nituzke. Zaintzetan esperientzia dut eta badakit sukaldean. Tf: 639 40 94 21.
- Edozein lan hartuko nuke: 639 40 94 21.

Erredakzioan aritzeko
langilea behar du KARKARAK.
Lan-poltsa ere osatuko dugu.
Maiatzaren 22a arte jasoko ditugu eskaerak.

AMATASUN BAJA
HARTUKO DUENA
ORDEZKATZEKO
LANGILE BAT BEHAR
DA, URTEA
BUKATU ARTE



KONTUZ



KARKARA

943 83 15 27

karkara@karkara.com